BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

866

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 30ekoa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, zeinen bidez irabazi-asmorik gabeko zenbait erakunderi laguntzak ematen baitzaizkie, hain zuzen ere, eskola esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzeko 2013-2014 ikasturtean Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan jardun nahi dutenei.

Kontuan harturik zer dioen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko irailaren 18ko Aginduak (agindu haren bidez, irabazi-asmorik gabeko zenbait erakunderi dei egiten zaie, hain zuzen ere, eskola esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzeko 2013-2014 ikasturtean Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan jardun nahi dutenei), aurkeztutako eskabideak eta ebaluazio-batzordearen proposamena aztertu ondoren, eta deialdia egiten duen aginduaren 12. artikulua aplikatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Elkarteei honako diru-laguntza hauek ematea, kasuan kasurako zehaztutako zenbatekoetan:

Elkartea	Lurraldea	Diru-laguntza
Gao Lacho Drom	Araba	55.420
Kale dor Kayiko	Gipuzkoa	74.980
Kale dor Kayiko	Bizkaia	146.000
AMUGE	Bizkaia	49.600

Bigarrena.– Honako elkarte hauek egindako eskabideei ezezkoa ematea, zehaztutako arrazoiengatik:

Elkartea	Lurraldea	Arrazoia
TENDEL-giza-kultur elkartea	Bizkaia	Behar besteko puntuazioa ez lortzea (12. artikulua)
Umeak Kalean-komunitatearen garapenerako elkartea	Bizkaia	Behar besteko puntuazioa ez lortzea (12. artikulua)

Hirugarrena.– Diru-laguntza bi alditan ordainduko da:

– Aurre-ordainketa bat egingo da, diru-laguntzaren % 20koa, emandako laguntza onartu eta berehala.

– Gainerakoa, diru-laguntza osoaren % 80a, bitarteko txostena aurkeztu ondoren ordainduko da. Hartan, proiektuaren ordura arteko garapena zein izan den jasoko da eta ikastetxeetan garatzen ari diren lan-plangintza aipatuko da. Txosten hori 2014ko urtarrilaren 7tik 31ra aurkeztuko da.

Laugarrena.– Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 30a.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,
MARÍA BEGOÑA GARAMENDI IBARRA.